

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Jendaurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko errolda eta kuotak, eta kobratzeko aldia

Jendaurrean daude, udal idazkaritzan, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko erroldak eta kuotak, eta hori argitaratzen da, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten oharrak edo alegazioak aurkezteko, 15 egun balioduneko epean, ediktu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Alegaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsizat joko da, eta kobratzeko aldia hasiko da.

I. Ordaintzeko epea:

a) Borondatezko epea: 2020ko ekainaren 24tik abuztuaren 24ra.

B) Betearazte aldia: 2020ko abuztuaren 25etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek udalean eskatu ahal izango dute.

III. Gomendioak:

Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Eltziegoko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Eltziego, 2020ko maiatzaren 11

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE